



Yerayren etxeko garaipena

Gaixotasun kronikoa du Andoaingo gazteak eta, familiak berriki jakin duenez, gaztea artatzea eskatu diote epaitegiek Osakidetzari / 8-9

AIURRI

Iristear da Korrika

Datorren astelehen gauean, martxoak 23, Andoain eta Urnieta zeharkatuko du Korrikak / 10

Adierazpena:
Arraza Diskriminazioa
Ezabatzeko
Nazioarteko
Eguna / 3

Postontzia:
"Ikatz Gane", Ainhoa
Ansa Zugarramurdi
eta Eli Pagola
Apezetxe / 6



**Atal berezia
Aiurri.eus
webgunean**

Albisteak, hitzorduak, argazki-bildumak, bideoak...

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**



Kantu liburuxka

MIZPIRADI 943 59 39 54
SAGARDOTEGIA



Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

sagarra, sagarrondoa, sagardoa



gure lurran estuki lotuta doa

ANDOA ENFELT TERAKO
ANDOA ENFELT TERAKO

sagardoa route

EZ ZAITEZ EROTU!



BERBETUEK AARRERAK ERRESERBATU
ZURE MAHAIA EDE BATEAN

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus

Zatoz gure sagardotegira!
Erreserbak. Tlf: 943 55 49 17
Web: altunasagardotegia.eus



Galarreta baserria, 5. Lategi. Urnieta

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardozakeen logela

HOTEL
HK10
HOTELA



Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta

943 59 19 68

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

www.gaztanaga.eus
info@gaztanaga.eus



Irurain etxea
Buruntza
auzoa
ANDOAIN

O! OIANUME
SAGARDOTEGIA

OIANUME
SAGARDOTEGIA - JATETXEA



oianume.com/eu - oianume@oianume.com
943 55 66 83 Ergoien, 18 - Urnieta

EULA

TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA

943 552 744 - 647 437 703

www.eulasagardotegia.com



LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA

943 555 846 - 616 287 867

Ereñotzu
auzoa, 58
Hernani



larregain.sagardotegia@hotmail.com

ADIERAZPENA

ANDOAINGO HAINBAT GIZARTE, KIROL ETA KULTUR ERAGILE ANDOAIN

Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Eguna



Udal Musika Eskolako Gazte Abesbatza, artxiboko irudian. AIURRI

Datorren martxoaren 21ean ospatzen den Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, Andoaingo udal-eragileek, alderdi politikoei eta hezkuntza eta gizarte-arloko ordezkariak gure ahotsa altxatzen dugu arraza-diskriminazio mota oro salatuta eta irmoki gaitzesteko, baita giza eskubideen eta bizikidetzaren aurka egiten duten diskurtso, jarrera eta praktika xenofobo eta arrazistak gaitzesteko ere. Lan-prekaritateak, etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunak eta oinarritzeko gizarte-eskubideen ahultzeak markatutako testuinguru batean, berresten dugu

arrazakeriaren aurkako borroka bereizezina dela justizia sozialaren eta pertsona guztientzako bizi-baldintza duinen defentsatik.

Arraza-diskriminazioa ez da iraganeko arazo bat: gaur egun ere presente dago, eta egiturazko adierazpen berri eta kezkarrien bidez agertzen da. Gorroto-diskurtsoen hazkundera, arrazakeriaren normalizazioa eta zatitu, seinalatu eta baztertzaren duten jarreraren ugaritzea ikusten ari gara. Dinamika horiek areagotu egiten dira desberdintasun, prekaritate eta bizi-segurtasunik gabeko testuinguruetan, egoera

ahulenean dauden pertsonen seinalamendua eta bazterketa elikatuz.

Arrazakeriak gogorren jotzen ditu jada zaurgarritasun-egoeretan dauden pertsonak. Pertsona migratzaile askok lan-baldintza bidegabeak jasaten dituzte, bereziki oso prekarizatutako sektoreetan, hala nola zaintza- lanetan, ostalaritzan, eraikuntzan edo etxeko lanetan: neurrigabeko lanaldiak, soldata eskasak, ezegonkortasuna, eskubideen gabezia eta babes sozialik eza. Horri gehitzen zaio etxebizitza duina eskuratzeko bazterketa, etxebizitzetako pilaketa-egoerak, alokairu-abusuak eta zuzeneko diskriminazioak, desberdintasuna eta bizi-segurtasun eza areagotzen dituztelarik.

Bizikidetzako kohesionatu eta bidezko baten oinarri nagusi gisa, enplegu duina, etxebizitza egokia eta gizarte-eskubide osoak eskuratzeko defendatzen dugu. Arrazakeriaren aurka borrokatzeak prekaritatearen aurka borrokatzea ere badakar, eskubide eta aukera-berdintasuna bermatzea, eta pertsona bakar bat ere ez dadila diskriminatua izan bere jatorriagatik, azalaren koloreagatik edo egoera administratiboagatik. Gai horietan guztietan, botere publikoek eskubide-berdintasuna errazteko

politikak egiteko betebeharra dute.

Hezkuntza gizarte-eraldaketarako ezinbesteko tresna gisa aldarrikatzen dugu. Funtsezkoa da adin goiztiarretatik hezkuntza-esparruan lan egitea. Ikastetxeak funtsezko espazioak dira aniztasuna normalizatzeko, segregazioa prebenitzeko eta bizikidetzako sustatzeko. Haurtzarotik haurrak inklusioan hezteko ardura kolektiboa da. Gaur egun Andoaingen hazten diren neska-mutilek giza eskubideak, berdintasuna, justizia eta tolerantzia sustatzen dituen ingurune batean haztea bermatu behar dugu; eta aurreiritziak zalantzan jartzen, estereotipoei aurre egiten eta aniztasuna aberastasun gisa – eta ez mehatxu gisa – baloratzen irakatsiko dien ingurune bat bermatu behar da.

Andoaingen, 2022tik, Udaren Kultur Aniztasunaren Plana dago indarrean, inklusioaren alde eta arrazakeriaren aurka ekintza kolektiborako ildoak ezartzen dituen. Ildo horretan aurrerapauso ugari eman dira, eta maila instituzionalean ekintza-esparru honetan lanean jarraitzeko konpromisoa dago, bizikidetzako sustatzeko helburuarekin.

Andoain udalerri anitza, plurala eta giza eskubideekin konprometitua da eta izango

da. Aniztasun etnikoa, kulturala eta jatorrizkoa aberastasun kolektiboaren iturri eta gure bizikidetzaren oinarritzeko zutabea da. Horregatik, sinatzaile garen eragileak arraza-diskriminazioaren aurka modu irmo eta etengabean jarduteko konpromisoa hartzen dugu, borroka hori gure politika, programa eta praktikan zeharka txertatuz, eta lana, etxebizitza, hezkuntza eta zerbitzu publikoak bezalako eskubideetarako sarbide unibertsala defendatuz.

Gaur, martxoaren 21ean, ez dugu data bat soilik gogoratzen: jarrera politiko eta etiko argi bat berresten dugu. Ekintza, diskurtso eta gertakari arrazista guztiak gaitzesten ditugu, eta erakunde, elkarte eta herritar gisa, errespetuaren, berdintasunaren eta bizikidetzaren defentsan paper aktiboa betetzeko konpromisoa hartzen dugu, elkarrekin Andoain hobeago, bidezkoago, inklusiboago eta arrazakeriarik gabeko bateruntz aurrera egingez.

"EKINTZA, DISKURTSO ETA GERTAKARI ARRAZISTA GUZTIAK GAITZESTEN DITUGU"



Aiurri eskuragarri:
Etxez ebeko harpidetza-sistema. Andoaingen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatazaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietia).
Diseinua: Golena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

ERROITZ
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOAINGO UDALA
DIRELZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA



EGAPE

Martxoak 8: aldarrikapen eguna Egape Ikastolan

Gure Hezkuntza Proiektuan jasota daukagun bezala, ikastolak, ikasleen arteko harremanak berdintasun iraunkorretik sustatzeko konpromisoa du. Hezkuntza ez sexistaren aldeko hautua egiten dugu eta curriculum guztietan zein arlo ez curricularrean genero ikuspegia txertatzen dugu.

Hezkidetza Planean, besteak beste, aldarrikapen egunak prestatu eta lantzen ditugu eta horien artean Martxoak 8 aipatu behar dugu. Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza burutzen ditugu urtero HHTik DBHra bitarteko ikasleekin. Aurten, jarduera anitzak egin ditugu.

Ostiralean, martxoaren 6an, EMAKUME EREDUGARRIAK lelopean, HH eta LHko ikasle guztiek parte hartuta, horma-irudi erraldoi bat osatu zen Egape Ikastola HLHko frontoian.

Goizean, pultserak egiteko hari more zatiak banatu genituen gela bakoitzean. Pultserak egiteaz gain, gela bakoitzak ikasleek eurentzat eredugarri diren emakumeen argazkiekin osatutako horma-irudi zatia prestatu zen.

Arratsaldean, 6. mailako ikasleek bertsoak abestu zituzten "Konplize ditut eta" doinuarekin Martxoak 8 gaiaren inguruan. Bertsoak entzun ondoren, musika lagun izanda, gela bakoitzak bere horma-irudi zatia itsatsi zuen, horma-irudi erraldoia osatuz. Horma-irudia, hurrengo asteetan zehar, ikusgai egongo da ikastetxeko pasabideetan. Bigarren Hezkuntzako ikastetxea ere morez jantzi genuen. Batera Gara ikasle taldeak berdintasunaren aldeko hainbat jarduera prestatu zituen. Maila guztietan aurretik prestaketa lanak egiten aritu ginen. Martxoak 8 egunari aipamena eginez, txartelak egin genituen eta horietako batzuekin herriko panel informatiboak eta eskolako hormak bete genituen. Astelehenean, berriz, eskolara morez jantzita hurbildu ginen eta saio bat hartu genuen gaia lantzeko. Ondoren, jolasgaraian taldeko argazkia egin genuen.



AIURRI

Eskualde mailako pala topaketa, Arraten

Martxoaren 8ko ekitaldien baitan, azken urteotako joerari eutsiz, emakumezko pala jokalariek topaketa egin zuten Andoainen. Larunbat arratsaldean ipini zuten hitzordura eta, hainbat partida jokatu ondoren, afari batekin borobildu zuten jardunaldia.

Oinarrian Andoaingo pala taldea dago. Izan ere, urteak dira larunbat goizero trebaketa-saioak egiten dituztela Arrate pilotalekuan. Argazkietan ikus daitekeenez, partaideek giro ederrean igaro zuten arratsaldea.



AIURRI



AIURRI

Atal berezia Aiurri.eus webgunean

MARTXOAK 8

Albisteak, hitzorduak, argazki-bildumak, bideoak...

Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaitez aiurrikide

AIURRI
KIDE



KOMUNITATEA

ERRESPETATU ANDOAIN PLATAFORMA ANDOAIN

Ama Kandida, tokiko politika arduratsuaren adibidea

Ideologia politiko desberdinek beren arteko desberdintasunak alde batera utzi eta elkarrekin lan egiteko gai direnean, aurrera ateratzen diren proiektuak guztion onerako dira.

Lehenik eta behin, Andoaingo ordezkari politikoei eskerrak eman nahi dizkiegu Ama Kandidan egindako lanagatik. Sentsibiltate edo ideologia politiko desberdinek beren arteko desberdintasunak alde batera utzi eta elkarrekin lan egiteko gai direnean, aurrera ateratzen diren proiektuak guztion onerako eta udalerrriaren etorkizuna kontuan hartuta pentsatutako proiektuak izaten dira. Une horietan, hain zuzen ere, herritarrek sentitzen dute politikak bere benetako eginkizuna betetzen duela: pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta herria helburu partekatuen inguruan batzea.

2011ko Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) bere garapen eredua bi ideia nagusitan oinarritzen du: trafikoa kanpora ateratzea (Ama Kandida ardatza eta N-1 ardatza) eta udalerrriaren konektibitatea hobetzea.

Lehen fase batean Ama Kandida ardatza garatu da, trafikoa A-15era (Buruntza) bideratzeari esker. Horri esker industria-eremu batzuk berreskuratu ahal izan dira etxebizitza erabilerarako, eta erabilera anitzeko ingurune bat sortu da (eskolak, industria eta etxebizitzak), gaur egungo hirigintza-ikuspegietan oso ohikoa dena.

Une honetan urbanizazioaren lehen fasea garatzen ari da. Horrek Ziako errekarren berreskuratzea ekarri du, ardatz honetan izaten ziren uholde-arazoak hobetuz. Horrez gain, bidegorri bat txertatu da eta Ama Kandida herriko goialdearekin lotu da. Horrela, adinekoen egoitza,



Ama Kandida etorbidea. AIURRI

inguruko bi eskolak, enpresak eta bizitegi-eremuak udalerrriaren goialdearekin konektatuta geratzen dira.

Bigarren ideiak, N-1 errepidea SAIHESBIDEra kanporatzeak, Ama Kandida ardatza osorik garatzea ahalbidetuko luke gaur egungo N-1aren trazatuan zehar, eta erabilera horien jarraitutasuna bermatuko luke (bidegorria, oinezkoentzako guneak eta espazio berriak) Karrika eta Sorabilla auzoetarako.

Argi ikusten dugu HAPOk proposatutako lehen ideia honen onura. Hala ere, kezkatzen gaitu bigarren ardatzean, N-1a kanpoko saihesbide batera ateratzearena, ez dela modu berean lan egiten ari, 2011n erabaki zen bezala.

Duela urte batzuk esan ziguten SAIHESBIDEaren proiektua bideraezina zela, uholde-arriskuaren argudioarekin. Baina gaur, Udalak enkargatutako azterketa konparatibo eta

eguneratuari esker, badakigu SAIHESBIDEA bideragarria dela; posible dela, indarrean dauden lege-baldintza guztiak betetzen dituelako.

Hori kontuan hartuta, ERRESPETATU ANDOAIN plataformak mozio bat aurkeztu zuen Osoko Bilkuran (2025-10-30), eta alderdi politikoei eskatu zien bertako bost puntuak banan-banan bozkatzeko.

EAJ-PNVk kontra bozkatu zuen puntu guztietan.

ELKARREKIN-PODEMOSek eta EH Bilduk bost puntuetan alde bozkatu zuten.

PSE-EEK lehen puntuan (EZ LAZOARI) bakarrik bozkatu zuen alde eta lehenengoa indartzen zutenen hurrengo lau puntuetan abstenitu egin zen.

"ANDOAINEN SAIHESBIDEA POSIBLE DA, LEGE-BALDINTZA GUZTIAK BETETZEN DITU"

Horregatik, ez dugu ulertzen Andoaingo PSE-EEK DVn (2026-02-12) argitaratutako artikulua. Izan ere, nola egin ditzake baieztapen horiek, Andoaingo interes orokorra bukaera arte defendatzea bilatzen duten lau puntutan abstenitu egin bazen?

Nola bozka dezake PSE-EEK LAZOAREN aurka eta, aldi berean esan Madrilgo laguntzan soberan zegoen dirua Aldundiak irailean Udalari bidalitako proiektua hobetzeraz bideratu behar zela? Hau da, LAZO proiektua? Demagogia ariketa dirudi.

PSE-EEK puntu guztien alde bozkatu izan balu, lehenengoarekin egin zuen bezala, Diputazioaren aurrean indar handiagoa izango zen. Baina ez zuten hala egin. Beraz, Andoaingo interes orokorra defendatzeko aukera galdu zutenak Andoaingo ordezkari sozialistak izan ziren.

Ikusi dugu nola Andoaingo Elkarrekin Podemos-ek eta

EH Bilduk udalerrian LAZOaren aurka bozkatu duten; baina Batzar Nagusietan, Elkarrekin Podemos Gipuzkoak LAZOaren alde bozkatu du eta EH Bildu Gipuzkoak ez du indar berarekin defendatzen Andoainen defendatzen duena. Azken jarrera, EAJ-PNVko ordezkariena, Andoaingo udal garapenaren eta ongizatearen aurka agertzea izan da, bai Udalean bai Batzarretan.

ERRESPETATU ANDOAIN plataformak ordezkari politikoei eskatzen die ez daitezela epe laburreko interesetan gelditu, 2027ko hauteskundeetara begira, etekin elektoral posible batean pentsatuz, eta berriro har dezatela interes orokorraren bidea interes partidisten gainetik, Ama Kandida ardatzaren garapenean egin duten bezala. Gogorarazi behar diegu, joan den urrian egin zen herri-kontsultan, iritziaren %93,78a SAIHESBIDEaren aldekoa izan zela. Alderdi politikoei, herritarren ordezkariak, benetan udalerrriaren interes orokorra defendatu nahi badute, ezin dute herritarren parte-hartzea eta iritzia baztertu.

Haratago begiratzeko eta epe luzerako inbertsioa lehenesteko eskatzen diegu, zuek zuek onenatzat jo duzuen proiektua argi defendatuz: SAIHESBIDEA. Proiektu bideragarria eta Andoainentzat seguruena den hori.

Lankidetzaz, elkarrizketa eta elkar ulertzeko borondatea daudenean, herriak aurrera egiten du, eta politikak ere bai.

"HARAGO BEGIRATZEA ETA EPE LUZERAKO INBERTSIOA EGITEA ESKATZEN DIEGU POLITIKARIEI"

POSTONTZIA

AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI, ELI PAGOLA APEZETXE URUMEAKO MENDIAK BIZIRIK

Ikatz Gane: lotsagabekeria hutsa

Lotsagabekeria hutsa da Endesak (Enigma Green Power bere morroiaren bidez) Ikatz Gane izenarekin Ereñotzuko lurretan eraiki nahi duen parke eolikoa. Lotsagabekeria hutsa da, ez dituelako aintzat hartzen Aranoko eta Ereñotzuko bizilagunak, baliatzen delako bi udalerrri txikik ez dutela denborarik, dirurik eta baliabiderik halako proiektuei horren epe motzean erantzuteko: nork aztertu ditzake ehunka eta ehunka orri tekniko lau asteko epean? Herri txikion baliabide faltaz aprobeztatzen dira.

Lotsagabekeria hutsa da proiektu hori, Arano aipatu ere ia ez dutelako egiten proiektuan, ikusmen eta entzumen kalte handientsuenak Aranok jasoko baditu ere.

Lotsagabekeria hutsa da, proiektu teknikoak ez duelako aipatu ere egiten eraiki nahi duten parke horren ondo-ondoan, ia erroten palak elkarri joka daudela, beste parke eoliko bat eraikitzeko asmotan dabilela beste enpresa bat, Repsol. Jakingo ez balute bezala. Zilegi al da parke eoliko batek izango dituen kalteei buruzko azterketa batean aipatu ere ez egitea aldamenen beste parke eoliko bat eraiki nahi dutela, ongi asko dakitenean bi parkeek elkarrekin kalteak biderkatuko lituzketela?

Lotsagabekeria hutsa, iruzur administratiboa eta adar jotzea. Horixe da aurkeztu duten proiektua, zatiketa administratiboaz baliatu direlako parkeak Nafarroa aldean, Aranon, sor ditzakeen kalteak ezkutatzeko. Eusko Jaurларitzak nulutzat jo beharko luke dokumentu hau, balizko beste parke hori aipatu ere ez egitea iruzur tekniko bat delako. Tramitaziora onartu beharko ote litzatekeen ere zalantzazkoa da, eta, gutxien-gutxienez, kautelaz eten beharko lukete.



Eolikoa aurreikusten duten eremua. AIURRI

Lotsagabekeria hutsa da proiektua, gainera, Espainiako sistema elektrikoak energia eolikoaren soberakinak dituelako, eta errota ordu askotan geldirik egoten direlako, eta energia esportatu ere egiten ari direlako, eta, hala ere, Endesaren morroiak ez duelako halako obra erraldoi batek izango lukeen bideragarritasun ekonomikoari buruzko planik aurkeztu. Are okerragoa da, ikusita horrelako zenbat proiektu ari diren aurkezten aldi berean eta ia inolako kontrolik gabe. Bideragarritasun azterketa minimorik gabe nola onar liteke halako proiektuak aurkeztea? Lotsagabekeria hutsa da, ez horregatik guztiagatik bakarrik, baita Gipuzkoan horrelako proiektuetarako lurralde plan sektorialik ez egotearen utzikieriaz baliatzen ari direlako ere; far west bat balitz bezala ari dira proiektu burugabeak aurkezten, inolako kontrolik gabe, eta indartsuenaren eta azkarrenaren legea erabilita.

Lotsagabekeria hutsa da, bai, Endesak kolonizatu nahi duen eremu horretan interes bereziko bost habitat, babesturiko zazpi landare,

onddo espezie bat eta hamalau fauna espezie daudelako. Horietako batzuentzat, bailara horiek dira bizileku bakarra edo bakarretakoa. Tartean dira, esaterako, iratze paleotropikal batzuk, bertan umatzen den arrano beltza, eta Pirinioetako endemikoak diren espezie batzuk. Elektrizitate pixar bat sortzeko, berdin dio horiek akabatzeak eta desagerrarazteak. Zer trantsizio energetiko egingo dugu, horretarako biodibertsitate guztia zanpatu behar badugu? Nondik nora doa trantsizio hori? burugabekeriatik ezerezera?

Lotsagabekeria bat dela ikusteko beste argudiorik behar duzu? Haize errotek izango duten eragin akustikoaren azterketa barregarria da: halako sistemek teorikoki izaten dituzten eraginak modu orokor batean aztertu ondoren, gero ez dago bost haize errota horiek, zehazki, ingurune horretan bertan sortuko duten kaltearen gaineko azterketarik. Eta horri, gero, aldamenen, beste parke eoliko bat gehitzen bazaio, eragina biderkatu egingo da. Ez dute lekura egokitutako azterketa akustiko serio bat ere egin.

Lotsagabekeria hutsa da, aurreko hori dena gutxi balitz, Euskal Herrian oso inguru natural gutxi gelditzen direlako; dena antropizatu dugu. Eta, halere, Ikatz Gane parke eolikoa eraiki nahi duten eremu hori oso aberatsa da, ia antropizatu gabea eta Aiako Harriko parke naturalaren eta Leizarango bailararen arteko korridore ekologiko naturala da, gainera.

Administrazio publikoek obligazio legala dute (Europak hala aginduta) beren lurraldearen %20 babestu eta berreskuratzeko, eta hondatutako ekosistemak berrosatzeko. Dena antropizatzen jarraitzen badugu, zer lur-eremu babestuko dituzte instituzioek etorkizunean? Karreterak? Jaurларitzak eta Gipuzkoako Diputazioak badute hor zer esana: saihestu beharko lituzkete debaldeko antropizazioak kalte gutxien duten eremu naturalen etorkizunerako natur erreserbak edukitzeko. Baina, berdin dio: proiektu hau lotsagabekeria hutsa delako, eta helburu bakarra batzuen patrikak betetzea delako; besteak beste, baso ustiaketan aritzen diren eta Aldundietan eskua sartuta duten egurzale sozietate eta

enpresarien patrikak betetzeko. Euskal abizendun sozietate horiek, lehenik, dirutza atera dute basoaren bizkar eta, orain, indemnizazio polita jasoko dute bost axola zaizkien lurretan errota jarriko dizkietelako.

Eta lotsagabekeria hutsa da, azkenik, proiektu honek ondare kulturalari barre egiten diolako. Bi esaldi besterik ez ditu idatzi Endesaren morroiak ia 700 orriko txostenean: "ondasun arkeologikoen eremua" ez du ukitzen proiektuak, eta: "beraz, ez dira aintzat hartu kalteak". Eremu megalitiko ikaragarri bat dago parkea eraiki nahi duten inguruan: hasi Oinditik, eta Mandoegiraino, tarteko mendi lepo guztietatik pasatuta; eta Etzion bertan ere badira ondasun arkeologikoak, haize errota eraiki nahi dituzten eremutik bertan. Jaurларitzaren agirietan ondareari buruz ezer ez agertzeak ez du esan nahi inguru horretan ez dagoenik ezer: esan nahi du ez dela ikertu behar beste. Eta zer egin du Endesak horren aurrean? Deus ez! Lurrak mugitzen hasi eta ondasunen bat topatuko balute, txikitzea libre.

Ez da onargarria ia 700 orriko dokumentu batean ondarea babesteko inolako neurririk ez hartzea, obran erabiliko dituzten boten eta eskularruen ezaugarri teknikoak ere zehaztu dituztenean.

Esan dugu: lotsagabekeria hutsa da proiektu hau. Horregatik, Urumeako Mendiak Bizirik herri ekimenarekin bat egiteko eta aurkeztuko dugun herri-helegitea babestu eta firmatzeko deia etiten dugu.

Helegiteak eskuragarri daude Goizuetako, Aranoko, Ereñotzuko eta Hernaniko hainbat gunetan eta Urumeako Mendiak Bizirik Telegram eta Whatsapp sareetan.

POSTONTZIA

EH BILDU URNIETA

Irurain gaineko biribilgunean bizikleta erabiltzaile zein oinezkoentzat segurtasuna bermatzeko esku hartze urgenteak

Pasa den otsaileko Udal Batzarraldian, Urnietako EH Bilduk aurkeztu zuen Irurain gaineko biribilgunean egunero bizitzaren diren arrisku egoerei konponbidea emateko mozioa eztabaidatu zen.

Gaiak badu urgentzia eta garrantzia, izan ere biribilgune hori A15-aren bi sarrera eta irteeren artean kokaturik dago, industria gune zein harrobiko beharrezko sarrera eta irteera da eta berriki ireki den gasolindegia erraldoira iristeko beharrezko pasa gunea ere bada.

Biribilguneak dituen trafiko handi hauek, bizikleta erabiltzaile zein oinezko askorekin elkarbizitzan

daude, izan ere biribilgune honetatik Andoaindik datorren bide gorria eta Urnietako oinezko osasun bideak igarotzen dira. Guzti honi, denbora laburrean Lasartetik datorren Plazaolako bide berdearen zabaltzeak ekarriko duen oinezko, zein bizikleta erabiltzaileen gehitze nabarmena gehitu behar diogu.

Irurain gainean egunero bizi izaten dira arrisku egoerak, horregatik, aurkeztu genuen mozio horretan, alde batetik, GI-3722 errepidearen jabegoa duen, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta konkretuki EAJren menpeko den Azpiegitura Departamentuari,

Irurain gaineko biribilgunean bizikleta erabiltzaile zein oinezkoen segurtasuna bermatuko duen esku hartze urgentea egin dezala eskatzen genion.

Bestetik, eta biribilgunera iristeko ibilbideak Urnietako Udaleko eskumenekoak direla jakinik, eta leku hauetan ere segurtasun arazoak sortzen direla jakitun, Urnietako EAJk eta PSE-k osatzen duten Udal Gobernuari eskatu genion, Ergoien industria poligonoan, bizikleta erabiltzaile zein oinezkoentzat izango den bide berezitu bat sortu dezala eta Ergoien poligonotik Iruraingo biribilgunera iristeko dauden espaloiak, zabaldu ditzala.

Urnietako EAJk zein PSE-ek Gipuzkoako Foru Aldundiari EH Bildutik proposatu genuen eskaeraren alde egin bazuten ere, euren ardurei uko eginaz, Ergoien industria poligonoan, bizikleta erabiltzaile zein oinezkoentzat izango den bide berezitu bat sortzeari zein Ergoien poligonotik Iruraingo biribilgunera iristeko dauden espaloiak zabaltzeari ezetz bozkatu zuten.

Urnietako EH Bildun, Udal Gobernuaren jarrera ulergaitza egiten zaigu, izan ere udal politikak aurrera eramateko beharrezkoa deritzogu ardurak partekatzea. Urnietako EAJ eta PSE-ek aldiz EH Bilduk proposatuta Aldundiari euren

zatia konpontzeko eskatzen badiote ere euren ardura eta eskumenekoa den zatia konpontzeari uko egiten diote.

Nolanahi, eta Irurain gainean bizikleta erabiltzaile zein oinezkoen segurtasuna bermatzeko helburuz, Gipuzkoako EH Bilduk, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Azpiegitura Batzordean, Irurain gainean bizikleta erabiltzaile zein oinezkoen segurtasuna bermatuko duen behin betiko esku hartze urgentea eskatuz, ebazpen proposamena aurkeztu du berriki eta datozen asteetan eztabaidatuko da.

Urnietako EH Bildutik adi, jarraituko dugu eztabaida.

Zuhaitz-landaketa

Andoaingo Eguzkik antolatuta, aurreko asteburuan 125 haritz landatu zituzten III. Zuhaitz-landaketan. Leizarango bailaran aritu ziren, Munttoko parajeetan. Giro zakarra izan arren, iragarritakoari eutsi zion lantalde prestuak

Erredakzioa ANDOAIN

Euria ez ezik, larunbat goizean, hotza, elur-bustia eta kazkabarra izan dituzte lagun landatzaile kementsuek. Eguzki talde ekologistak adierazi duenez, "125 haritz landatu ditugu, aurreko urteetako beste ehunka zuhaitzei batu zaienak. Larrialdi klimatiko eta krisi global bete-betean, bertako baso autoktonoa lortze- ra goaz!".

Datorren hitzordua, hilaren 25ean

Ibaien Aldeko Nazioarteko Egunarekin (martxoaren 14a) bat eginez, herriko ikastetxeetan ibai garbien aldeko kanpaina burutzen ari da Andoaingo Eguzki talde ekologista.

Kanpainari amaiera emateko, datorren martxoaren 25ean, To-



Eguzki taldeko kideak, aurreko larunbatean Otietan. EGUZKI

losaldeko kobazuloen egoera hizpide duen dokumentala proiektatuko dute Basteroko Kultur-guneke ekitaldi aretoan. Horre-

la, 18:45ean, ate irekiera eta aurkezpene egingo dute; 19:00etan dokumentala emango dute, eta 19:30ean, solasaldia izango da.

Dokumentala, hilaren 25ean

Larraulgo leizezulo baten kanpoaldean irudi esanguratsua ikus zitekeen 2025eko udazkenean: Zakutan eta pila ezberdinetan banatuta, 8000 kilo zabor ageri ziren. Garbiketa lanak egin berri zituzten, urtetan pilatutako hondakinak leizezuloan ateraz. Gai horri helduta, dokumentala ikusteko saioa antolatu du Eguzkik.

Kobazuloak garbitzeaz arduratzen den elkarte 2023an sortu zen eta Lurpea Garbi izena du. Kideak, aurrez ere, lanean arituak ziren inguruko hainbat koba eta leizeetako garbiketa lanak egiten. Kobak ikusi, egoera aztertu, eta garbiketarak egin ohi dituzte. Udazkenean, Larraulgo leizezulo batean pasa zituzten azken asteak. Inma Mugertza hidrogeologian doktorea, Eneko Agirre biologoa, Angel Navas espeleologoa, Koldo Jauregi mugetan aditu larrauldarra eta Uxue Lasa espeleologoa aurki daitezke elkarteke kideen artean. "Arantzadirekin hitzarmena dugu. Gure lanaren zati handi bat bilaketa izaten da; mendira joan eta txoko ezberdinetan barrena ibiltzea, leizezuloak bilatuz. Kobazulo horietara sartzen gara, bertan egon daitezkeen hondakinen estimazioa egiteko", adierazi zioten Aiurri hamaboskariari iazko udazkenean. Herriz herri ere ibiltzen dira hitzaldiak ematen eta, hala, laster Andoainera hurbilduko dira: "Egoera azaltzeaz gain, herritarren ahotik jasotzen dugu informazio asko. Eskoletara ere joaten gara, kobazuloetan hondakinak egoteak duen eraginaren inguruko azalpenak ematera". Ez da erraza izan zikinduta dauden kobazuloen garbiketa noren ardura den zehaztea. "Normalean, lur barreak ez du jaberik, beraz, ez zegoen oso garbi norena zen garbitzeko ardura. Azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki du udalei dagokiela lan horiek egitea. Aldundiak gastuei aurre egiteko dirulaguntza-lerroa sortu du. Gerta daitekeelako, udalerri batzuetan egin beharrezko gastua uste baino handiagoa izatea".



Karrikako auzotarrak Yerairekin, Zume plazan 2023ko abenduan antolatu zuten elkartasun jaialdian. AIURRI

Yeray gaztea artatzea eskatu diote epaitegiek Osakidetzari

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Rodriguez Martin familiari arrazoia eman dio eta Osakidetzak hazkunde-hormonen tratamendua ordaindu beharko dio hesteetako malformazioarekin jaio zen Yerai mutikoari

Xabier Lasa ANDOAIN

Gogoratu behar da familiaren aldeko bigarren epaia dela horixe; 2025eko maiatzean, Donostiako Epaitegiak ere familiaren alde egin zuen, baina Osakidetzak errekurtsioa jarri zuen orduan.

16 urte betetzera doan Yeray mutikoa hesteetako malformazioarekin jaio zen eta horrek normaltasunez haztea eragozten dio. Hazkunde hormonak behar zituen mediku espezialisten iritziz.

Donostia Ospitaleko pediatria-endokrino saileko profesionalen oniritzia eduki arren, Osakidetzako zuzendaritzak 2023ko ekainean, erakundeko aholkulari-batzordearen balorazioa kontuan hartuta, erabaki zuen gazteak

ez zituela betetzen baldintzak bere gain har zitzen tratamenduaren kostuak.

Gauzak horrela, osasungintza pribatutik ekin zion tratamenduari familiak; beren poltsikotik egitea aurrera gastuei, Donostia Poliklinikan. Aldi berean, familiak demanda jarri zion Osakidetzari, tratamenduko gastuak eskatuz. Iazko maiatzaren 7an, Donostiako epaitegiak arrazoia eman zion. Epaia mediku-gastuak ordaintzera zigortu zuen Osakidetzari; ia bost mila euro ordaindu behar zizkiola zehaztu zuen epaia, hain zuzen.

Nolanahi ere, Osakidetzak epai horren aurkako errekurtsioa jarri zuen orduan, eta hari erantzunez dator otsailaren 10eko azken epaia. Justizia Auzitegi Nagusiko epaileek -Donostiakoaren gainetik dagoen organoa da EAEko haxe- arrazoia eman diote Yerai Rodriguez Martin familiari, esan bezala.

Epaia jakitera eman zenetik legez ezarritako epea igarota, alderdietako inork ez zuenez errekurtsioa aurkeztu, epaia irmoa dela deklaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, joan zen martxoaren 4an.

Azken batean, epaiak bat egin du Donostia Ospitaleko pediatria-endokrino saileko profesionalen eta Poliklinikako profesionalen txostenekin, Yerairen kasuak ez dituela “baztertuta izateko irizpideak betetzen” alegia.

“Merezi izan du borroka egitea”

Patricia Martin eta David Rodriguez Yerai mutikoaren gurasoak oso pozik agertu dira epaiarekin. “Borrokatzuz gauzak lortu daitezkeela erakusten digu epaiak”, adierazi du Martinek irmotasunez. “Merezi izan du justiziazkoa iruditzen zaizun kausa baten aldeko jarrerari eustea, ze beti ez bada ere, batzuetan David eta Goliathen arteko historia errepika daiteke”.

Otsailaren 10eko epaiak errekurtsioa jartzeko aukera irekita utzi zuen, eta hargatik, egun batzuk itxaron behar izan zuten alaitasuna publikoki zabaltzeko aurretik. “Zalantzak geneuzkan Osakidetzak kontrako pausoa emango ote zuen ala ez. Arrazoi bat baino gehiagorengatik. Izan ere, batetik, bere esku baitaizka guztionak diren errekurtsioak (ekonomikoak, abokatuak...), eta halako kausak oso merke ateratzen zaizkio ikuspegi ekonomikotik. Bestalde, bere jarrerak hasieratik eman digu bidea pentsatzeko erakunde horretan egon zitekeela baten bat begian hartuta zeukana gure kasua; eta are gehiago, zergatik ez, pentsa zezakeen Osakidetzaren kaltegarria izan zitekeela, kontrako sententzia batek aurreraria edo jurisprudentzia sor zezakeelako, eta horrek bidea ireki zezakeelako atzetik demanda gehiago aktibatzen...”.

Epaia prozesuaren kostuak Osakidetzaren bizkar jarri izanaren ere harridura eragin diela gaineratu dute. “Izan ere, abokatuak esan zigunez, kostak demanda egilearentzat izaten dira normalean, antzeko kasu hauetan”. Epailearen erabaki hori modu bakarrean interpretatu behar duela uste dute: “epaileek belarri-tiradizoa eman nahi izan diotela Osakidetzari, alegia”.

Gauzak horrela, epaileek Osakidetzari emandako agindua hurrengo egunetan betearaztea, tramite administratibora mugatuko dela uste du bikoteak.

Zehaztu dutenez, garestitzen joan da tratamenduaren gastua emanaldi bakoitzeko, denbora

horretan. Ia 16 mila euro gastatu dituzte, hormonen hazkunderako farmakoaren eta tratamendua beraren artean.

Era horretan, Yeraik hazkundera-hormonen tratamenduari helduta bizi izan da azken bizpahiru urtetan, joan den azarora bitarte. “Yerairen eboluzioaren segimendua egin duten medikuek esana digute hartu beharrekoak jada hartu dituela, hemendik aurrera ez diotela eraginik egingo, arrazoi biologikoengatik eta adinagatik nerabetasunaren atarian dagoelako”.

Emaitzak oso baikorrak izan direla adierazi dute, 1,39 metro neurtzera iritsi baita, eta 34 kilo dauzka. “Tratamendurik ezean, ez zen neurri fisiko horietara iritsiko”.

Eskertza, askorentzat

Bizpahiru urteko ibilbide judizialean murgil zitezen, zenbait pertsonen babesa jaso dutela gogorarazi dute Rodriguezek eta Martinek.

Osasungintzan ibilbide luzea egindako Iñigo Jaca aipatu dute lehenbizikoz. Donostiako Arantzazu Erresidentzia Sanitarioko zuzendaria (1983-1986), Arantzazu Ospitaleko gerentea (1986-1988), Gurutzetako Ospitaleko Zuzendari gerentea (1988-1991) eta Donostiako Institutu Onkologikoko zuzendari nagusia (1991-2009) izan zen Jaca. “Herriarren eskubideen alde jokatu zian dut beti erakundeen gainetik, eta oraingoan, ezinbestekoak izan dugu bere aholkularitza, behar ziren tramiteak eta eraman beharreko pausoak nortzuk ziren jakin genitzan; berak emandako animozko babesa ere ezin dugu ahantzi” adierazi dute.

Oscar Padura abokatuak defendatu du Rodriguez Martin familiaren demanda epaitegietan, eta esker oneko sentitzen dira berarekin. “Jacak jarri gintuen harremanetan abokatuarekin. Barruak mugiarazi zizkion gure kasuak Padurari, eta modu altruistan defendatuko gintuela agindu zigun. Lehen ere gaixotasun berezia zeukaten haurrak

“IKARAGARRIA IZAN DA LAGUNEK ETA HERRIKIDEEK ERAKUTSI DIGUTEN ESKUZABALTASUNA”



Patricia Martin eta David Rodriguez, aldeko epaia jakin eta laster, Karrikan. AIURRI

artatzeko protokolo bat ezartzea lortu zuen epaitegietan, eta bazeukan eskarmentua alde horretatik. Hasieratik adierazi zigun zaila geneukala kausa irabazteko, baina saiatu behar ginela”.

Biek gogorazi dutenez, laguntza ukatu zietenetik makina bat eskaera eta erreklamazio egin zituzten, eta ondoren etorri zen bide judizialari ekitea, demandaren eskutik. “Hasiera batean, alboan utzi genuen gastuak ordaintzeko eskatuz demandaren aukera; nahigo izan genuen familiaren gastu ekonomikoa Yerairen tratamenduarengana bideratu. Izan ere, bata ala bestea planteatu zitzaigun une jakin batean, eta argi eduki genuen

Yerairen osasunak zeukala lehen-tasuna”.

Horrela, tratamenduarekin jarraitzeko erabakia hartu eta hilabete batzuetara heldu zitzairen abokatuaren laguntzaz demanda jartzeko aukera. “Gure kasa ezin ahal izango genuen kontratatu arrazoi ekonomikoak zirelamedio, baina borondatez etorri zitzaigun, eta benetan eskertuta gaude berarekin, esan bezala”.

Era berean, oso gogoan daukate herrikideen aldetik jaso izan duten babesa. “Ez daukagu hitzik adierazteko zenbat esker-tzen ditugun elkartasun keinuak. Ikaragarria izan da Andoaingo eta Lasarte-Oriako lagunek eta herrikideek erakutsi diguten eskuzabaltasuna; ez bakarrik bi

herrietan antolatu zituzten ekitaldiengatik, baita ere, gurekin jartzen ari diren interesagatik eta ematen dizkiguten animoen-gatik; harrigarria da zenbat jende hurbiltzen zaigun Yerairen osasunagatik eta prozesu judizialagatik galdezka!”.

Iritsi diren lekura iritsita, jasotako esker oneko nola itzuli hausnartzen ari dira. Oraingoz ez daude ezer aurreratzeko moduan, baina badarabilte zerbait buruan. Dena delakoak festa giroarekin zerikusia izango duela, hori ziur daukate.

Yerairen bizi-kalitatea, etorkizunean

Yeraik 16 urte beteko ditu datorren apirilean, eta jada konta ezin ahala ebakuntza egin dizkiote. “Kontuan hartuta sabelean-eta egin dizkioten ebakuntza guztiak, oso modu trebean ari da eramaten prozesua. Kontziente da zer daukan, eta ahalik eta bizimodurik normalena egiten saiatzen da, heldutasunik handiarekin; badauka meritua! Ikastetxean saiatua da, eta eskolaz kanpoko ekintzei dagokionez, Jiu-Jitsu arte martziala praktikatzen du batik bat. Hedabideetan ateratzea egokitu zaio, pittin bat lotsatia da, baina jende helduak-eta kalean geratu eta galdetzen badio hau eta beste, edukaziorik handienarekin erantzuten die”.

Hesteetako malformazioarekin jaio zen Yera, esan bezala. Hesteak ebaki eta josi egin behar izan zizkioten, eta horrek nor-

maltasunez haztea eragozten dio. Horrenbestez, Nutrizio Parenterala (NP) izeneko aparteko laguntza aplikatzen zaio Yerairi, ezinbestean. Hitz gutxitan esanda, funtsezko nutrienteak (proteinak, karbohidratoak, koipeak, bitaminak, mineralak) odol-uharrean zuzenean ematean dantza formula hori; bena-kate-ter baten bidez eta traktu gastrointestinala saihestuz burutzen da ariketa hori.

Argi xamar ikusten du Yerairen etorkizuna zein izan litekeen, bikoteak: “Yera aparteko mutikoa da osasunaren ikuspegitik; gastroenteritis arrunt bat jasan ez-kero, aparteko tratamendua eta botikak behar ditu derrigor. Eta bestalde, ohiko tratamenduak ere ezin da denboran gehiegi luzatu; medikuek badakite hori, eta goiz ala berandu, sei-zazpi organoen transplantea erabakitzeke uea iritsiko zaio Yerairi, bere bizi-kalitatearen mesederako”.

Egoera berekoei laguntzea, begiz-jota

Demandak eragindako dinamika guztiak zein Donostiako EAEko epaitegien bi epaiek etorkizunari begirako bigarren gogoe- ta eragin die bikoteari. Martinek zehaztu duenez, “behin atzean utzita demanda judizialak eragindako buruhaustea, ekimenen bat martxan jartzeko gogo piztu zaigu”.

Martinek gehitu dutenez, “Yerairekin gertatzen ari zen injustizia sozializatzea erabaki genuen bere garaian; esposizio publiko batera makurtu behar izan gara, eta ezagunak egin gara nolabait. Eta horretan, kontsultatzera etorri izan zaigu jendea, antzeko egoeran egon daitezkeen kasuak azalduz”.

Martinek sentimendu jakin batzuk sumatu izan ditu kontsulta horietan, “Osakidetza bezalako erakunde ahaltsuek aurrean ditugunean normalki sentitu ohi ditugun babesgabetasuna, ezjakintasuna, etsipena, errespetua edo beldurra...”. Egia esan, larrutan ikasi dugu zer den sentimendu horiekin bizitzea. Horrexegatik, urte hauetan pilatu dugun eskarmentua nolabait besteentzat baliagarri izan zedin nahi genuke. Ez dakigu nola, baina beharbada, laguntza el-karte bat sortzea izan liteke egokiena, antzeko egoera bizi dutenei bideratzeko ikasi dugun guztia”.



Andoaingo Basatalogileak, Zumea plazan, 2023ko abenduan antolatu zuten elkartasun jaialdian. AIURRI

Korrikak eragiten duen zirrara bizitzeko prest

Atharratzetik abiatuko da Korrika, ostegun honetan. Une horretatik aurrera euskaltzale ugari bertatik noiz igaroko zain izango dira. AEK euskaltegiak eta Korrika batzordeek girotzeko ekitaldiak antolatu dituzte Andoainen eta Urnietan



Urnietarren aurrean egin zuten aurkezpen-ekitaldia, aurreko astean. Besteak beste, Mintzalagunek parte hartu zuten. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ko rri ka! Ko rri ka! geroz eta gertuago dago oihu ezaguna lau haizetara zabaltzeko abagunea. Datorren astelehenean izango da, gauerdian. Eta ziur gaude euskaltzale ugari una noiz iritsiko zain direla.

Giroa berotzeko ekitaldi-sorta egin dira. Urnietan Korrikaren aurkezpena egin zuten aurreko ostegunean. Denda Berri tabernan, euskaltegiaren eraikin

berean, AEK euskaltegiako kideek ekitaldi berezia antolatu zuten: Urnietako hitzorduen xehetasunak, Mintzalagunen hitzak eta ikasleen arteko jolasak nabarmendu ziren. Bertaratu zirenen artean parte hartzea sustatzeko, hiruhileko bakoitzean euskaltegian egiten duten jolasa antolatu zuten Plazido Muxika plazan. Amaieran, bertaratutakoek Errigorako olio dastatzeko aukera izan zuten.

Triki-poteoa, Andoainen

Asteazken iluntzean, San Jose jai-egunaren bezperan, euskal giroko kalejira nabarmenduko da Andoaingo kaleetan. Andoaingo Korrika Batzordeak antolatuta, Puntutoka bertso-eskolaren eta Urki dantza taldearen partaidetzarekin, kalez kale ibiliko dira iluntzeko 19:00tan hasita. Bertsoan ariko dira Eñaut Martikorena eta Andoni Mujika "Anatx" urnietarra.

Martxoaren 23tik 24ra doan gauean igaroko da Korrika

Martxoaren 23tik 24ko gauean, Iruratik egingo du sarbidea KORRIKAK Amasa-Villabonan. Eta, jarraian, Zizurkil, Aduna, Andoain eta Urnieta zeharkatuko ditu. Handik Hernanirantz abiatuko da. Honatx, ibilbidea, antolaketak aurreikusi bezala:

• Agustin Leitza, 17 0:34:32
• Agustin Leitza, 1 0:35:15
• La Salle etorb., 8 0:36:18
• Arantzibia kalea, 1 0:38:40
• Gudarien etorbidea ... 0:40:47
• Gudarien hiribidea 0:42:16
• Gudarien etorb., 41 ... 0:44:13
• Gudarien hiribidea 0:47:28
• Gudarien etorb., 36 ... 0:50:43
• Biribilgunea 0:53:58

ANDOAIN

• GI-3610 errepidea 0:13:23
• Sorabilla 0:14:41
• Aiztondo, 22 0:16:11
• Aiztondo, 6 0:18:08
• Aita Larramendi, 28 .. 0:19:26
• Aita Larramendi, 17 .. 0:20:36
• Txitibar kalea, 3 0:22:07
• Kale Berria, 9 0:23:12
• Kale Berria, 40 0:24:04
• Kale Berria, 12 0:24:57
• Plaza Morea 0:26:15
• Doktor Huitzi, 1 0:27:16
• Doktor Huitzi, 18 0:28:02
• Doktor Huitzi, 23 0:29:20
• Rikardo Arregi, 13 0:30:23
• Agustin Leitza, 27 0:31:10
• Agustin Leitza, 11 0:32:39
• Rikardo Arregi, 3 0:33:42

URNIETA

• Ergoien, z/g 0:56:21
• Ergoien, z/g 0:58:33
• Ergoien, 18 1:00:26
• Ergoien, 4 1:02:08
• San Juan kalea, 42 ... 1:04:13
• San Juan kalea, 17 ... 1:06:14
• Azkorte kalea, 4 1:08:18
• Arantzubi kalea 1:10:08
• Idiazabal kalea, 19 ... 1:11:45
• Idiazabal kalea 16 1:13:19
• Oztaran 1:14:52
• Oztaran auzoa 1:16:22
• Oztaran 1:18:19

HERNANI

• GI-2131
• biribilgunea 1:20:12



Errigora da aurtengo omendua. Bada, olio dastatzeko aukera izan zen Urnietan.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Urnietako
udala

KORRIKA GIROTZEKO HITZORDUAK

ANDOAIN

MARTXOAK 18

ASTEAZKENA

19:00 Plaza Morea. Bertso-triki poteoa, Punttuka eta Urkiren eskutik. Eñaut Martikorena eta Andoni "Anatx" bertsolarien parte-hartzearekin.

MARTXOAK 23

ASTELEHENA

11:30 Korrika gaztea, ikasle gazteen partaidetzarekin. Amaitutakoan, DJ emanaldia.
15:30 Korrika txikia.
18:00 Peto-potea.

19:00 Zumea plaza. Petoen banaketa. Euriarekin, Makaldegian.

20:30 Zumea plaza. Bokata-afari musikatua. Txartelak salgai. Ernaitza, Keinu eta AEK. Euriarekin, Makaldegian.

00:10 Korrika Andoainen. Aduna aldetik iritsiko da Sorabillara.

URNIETA

MARTXOAK 22

IGANDEA

18:00 San Juan plaza. Egape Dantza Taldearen eta Musika Eskolakoan emanaldia.

19:00 Iago magoaren saioa. Eguraldi txarrarekin, Saroben.

MARTXOAK 23

ASTELEHENA

18:00 San Juan plaza. Kalejira: Kantazaun eta Musika Eskola.

19:30 Pilotalekua. Bertso-pilota saioa.

21:30 San Juan plaza. Herri-afaria, bingo musikatua. Eguraldi txarrarekin, Egapen. Nork bere afaria eramango du etxetik.



Andoni Mujika "Anatx" urnietarra kantuan ariko da, Andoainen. AIURRI

01:00 Korrika! Andoaindik barrena iritsiko da Urnietara. Udalerria zeharkatu ostean Hernanirantz abiatuko da.

MARTXOAK 26

OSTEGUNA

19:00 Matxo. Korrika ardoen dastaketa, Biba ardoak adituen eskutik.

MARTXOAK 27

OSTIRALA

10:00 Kandela tabernatik abiatuta, Korrika Txikia.

MARTXOAK 29

IGANDEA

Egun osoko ospakizuna Bilbon.

Andoaingo emakumeentzako Jabekuntza Eskola

UDABERRIKO IKASTAROAK - 2026

Batukada feminista

ASTELEHENAK. Apirilak 20, maiatzak 18, ekainak 1, 15. **18:00-20:00**, Leizaran Institutua. Botapa Batukada.

RAP ikastaroa

ASTEAZKENAK. Apirilak 15 eta 17. **18:00-20:00**, Arrate. Elena Caballero (LA BASU)

Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak

ASTEARTEAK. Apirilak 14, 28, maiatzak 12, 26, ekainak 9. **10:00-12:00**, Arrate. Saioa Garmendia.

Filofeministak: Filosofia errepublikarrak etxe bila "erbestean"

ASTELEHENAK. Apirilak 13, 27, maiatzak 11, 25, ekainak 8, 15. **18:30-20:30**, Arrate. Marisa Hurtado.

Mendi orientazioa

Ekainak 5, ostirala (**17:00-20:30**).
Ekainak 6, larunbata (**09:00-14:00**).
Ekainak 7, igandea (**09:00-14:00**).
Patri Espinar.

Elektraingar lantegia: argia eskuz esku

OSTEGUNAK. Apirilak 16, 23, 30, maiatzak 7, 14, 21, 28. **17:00-20:00**, Arrate. Paz Carbajosa.

Ibilian irakurri: Maitasunaren kapital feministaz

ASTEARTEAK. Apirilak 14, maiatzak 5, ekainak 9. **18:30-20:30**, Arrate. Iratxe Retolaza.

Nutrizioa perimenopausia eta menopausian

ASTEARTEAK. Maiatzak 19, 26, ekainak 2. **18:30-20:30**, Arrate. Aitziber Aizpuru.

Sendabelarrak ezagutzen I

ASTEAZKENAK. Maiatzak 20, 27 ekainak 3, 10. **18:00-20:00**, Arrate. Kris Lizarraga.

Gure zoru pelbikoa konkistatuz!

OSTEGUNAK. Ekainak 4, 11, 18. **17:00-19:00**, Arrate. Sara Majarenas.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala

ASTEARTERO. 16:30-18:30, Arrate. Sorburu.

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:

jabekuntza.andoain.eus
Andoaingo Udaleko Berdintasun lansaila.
Tel. 943 300 830, luz. 380 - 385;
berdintasuna@andoain.eus - Andoaingo Udaleko ATARIA



Itzulera, hitzez eta doinuuz

Letragile, iritzi-emaile, idazle... euskal letretan erreferentzietakoa da Jon Garmendia "Txuria". Urte luzeren ostean, sorterrian, "Bidasoatik harago" aurkeztu zuen Xabier Solano aspaldiko laguna alboan zuela. Ehundik gora lagun hurbildu ziren

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Herri bat, bitan zatituta. Herri bat, bitan zatituta", entzun zen Salesiar ikastetxearen areto nagusian. Jon Garmendia "Txuria"ren bizitza zeharkatu duten esperientziak, bizipenak dira "Bidasoarik harago" ikuskizunaren oinarria. Sakon eta indartsu aritu zen Garmendia eta, alboan, Solano, trikitixarekin enegarren erakustaldia eginez. Konplize dira biak, 30 urte luzez elkarrekin aritu baitira elkarlanean. Haien lanak izan du fruitua: buruan dugun kantutegi kuttunen egileetakoak dira biak. Bata, letragilea. Bestea, kantari eta musikagilea. "Bidasoatik harago" ikuskizunean hitza eta musika uztartzen ari dira Euskal Herrian barrena eraman dituen biran. Aurreko astean, Korrika



Jon Garmendia eta Xabier Solano, aurreko ostiralean. AIURRI

Kulturalaren baitan, geldialdia egin zuten Urnietan, Garmendiaren sorterrian. Eskerrona adierazi zien antolatzaileei, Kantazauneko euskaltzaileei eta

Aiurriko lankideei. Hitz bitan, emanaldia auzolanean antolatu zuten eragile guztiei. Ehundik gora lagun elkartu zen Salesiar ikastetxearen areto nagusian.



Ehundik gora lagun elkartu zen Salesiar ikastetxearen areto nagusian. AIURRI



Liburuak sinatu zituen emanaldiaren amaieran. AIURRI



48. zenbakia 2026ko martxoa

IKUSBERA

ika, ika, ika!
hemen dator Korrika!

AIURRI



Harpidedun izatearen abantailak

Laster zenbaki berria argitaratuko dugu!



KANTARI

Aiurri.eus gunean, lau emanaldiak ikusgai



**Bost txoruenak
Sorginak
Lau lagunak
Bost izarrak**

**Izarren taldea
Izar berriak
Izar neskak
Koloretako gela
Dantzariak**

**Lau futbolariak
Abeslariak
Izargi
Elur panpina**

**Izarrak
Bost eklipseak
Hiru eguzki izpiak
Kantariak**



Senior mailako onenak, podiumean. AIURRI

Bigarrenen ere, negu giroan igaro zen Duatloia

Zaila zirudiena berriro gertatu zen: eguraldi makurrak baldintzatu zuen Zumeatarrak mimos prestaturako Duatloia. Bigarren edizioan ere eguraldia izan zen protagonista: lasterkariak hotzari, euriari eta haizeari aurre egin behar izan zioten

Erredakzioa ANDOAIN

Maila handiko lasterketa izateko osagaiak ditu Andoaingo Duatloiak: Kirol jarduera horretan eskarmentua duten Zumeatarrako kirolariak daude antolaketa taldean murgilduta, boluntario-

talde polita elkartzeko gai dira eta, hori gutxi ez eta Andoain-Leitzarar aldean ibilbide aparta diseinatzeko aukera dago. Atal horietan guztietan bikain aritu dira bi urte hauetan. Baina bada kontrola ezina den aldagaia: egu-

raldia. Irabazi zutenentzat, akaso, epikoagoa izan zen garaipena. Beste guztientzat, ordea –antolatzaileak, ikusleak, lasterkariak– negu beteko arratsalde gogorra. Ea eguzkiak agerpena egiten duen hirugarrenean!



Gizonezkoen irteera, Goikoplatatik abiatuta. AIURRI



Hotzari aurre egiteko neurriak hartu zituzten helmugan. AIURRI



Boluntarioak ezinbestekoak dira proba egin ahal izateko. AIURRI



Kale Berrian bat egiten zuten lasterkariak eta txirrindulariek. AIURRI



Zumeatarrako Oihana Sanz, Otietako bidean. AIURRI



JAVI MENTA

Espainiako maratoi txapelketan, hirugarren

Zumeatarra Kirol Taldeko Javi Menta, Ander Lazkano eta Borja Barrague maratoilariak hirugarren postua lortu zuten Bartzelonan, Espainiako taldekako txapelketan, igandean. Honatx, denborak: 1. Carnicas Serrano (Valentzia), 06:55:40; 2. Atletico Oroel (Jaca), 07:11:35;

3. Zumeatarra Kirol Taldea (Andoain), 07:18:49. Bakarka, berriz, hona lasterkariak egindako denborak: 1. Ricardo Rosado (02:13:31), 12. Javi Menta Martinez (02:21:22), 27. Ander Lazkano Letamendi (02:25:55), 37. Borja Barrague Calvo (02:32:40).

Garrantzi handiko puntua lortu zuen Euskaldunak

Ohorezko erregional mailako futbola azken hamar jardunaldietan sartu da eta Euskalduna mailari eusteko borroka bizian da. Aurreko asteburuan bina berdindu zuen Beasain B taldearen aurkako partidari.

postuan da orain eta ahalik eta goian amaitzea da xedea, jaitziera saihestu ahal izateko. Aste-buru honetan partida zaila dute Ubitarten, laugarren postuan den Zumaiakoren aurka. Talde urdina animatzeko aukera bikaina dute zaletuek. Beharko dute eta.

Emakumezkoetan, Euskaldunak 4-1 garaitu zuen Pasaia eta,

une honetan, sailkapenean hirugarren postuan da.

SAILKAPENA	
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
1	Real Union B 56
14	Orioko 24
15	Euskalduna 20
16	Hernani 20
17	Mutriku 20
18	Deustu 19

Play-off postuen bila, borrokan da Urnieta Artola Harategia

Datorren larunbat arratsaldean Pulpo taldearen kantxan ariko dira, igoera-ligaxkara sailkatzeko helburuarekin

Erredakzioa URNIETA
Senior mailako Urnieta Artola Harategiak mendean hartu zuen Aritzbatalde Taberna ZKE (32-29). Partida gogorra izan zen arren, zaraustarren aurka nagusitzea lortu zuten. Garaipen horri esker, urnietarrek, 2 puntutara dituzte play-off postuak, denboraldia amaitzeko bi jardunaldi falta direnean. Beste urte batez, sailkapenaren goiko aldean amaitzeko borrokan jarraituko dute.

Kadete mailan, Urnieta Lanchas Bus taldeak ezin izan zuen txapelketako liderra irabazi. Nahiz eta partidari oso ondo aritu, Ereintza Aguaplast nagusitu zen 31-37. Kadete mailako Urnieta Iñaki Mecanizados-eko taldeak izugarritzko norgehiagoka jokatu zuen, eta 15-28 nagusitza lortu zuen. Modu horretan, bolada oso

onean daude, denboraldiko azken txanpari aurre egiteko.
Infantilek ere garaipen garrantzitsua eskuratu zuten larunbatean. Hain zuzen ere, 22-18 irabazi zuten Astigarragako Munderro KE taldearen aurka. Urnieta Sardón Comunidades y Servicios taldeak oso partida ona egin zuen, eta lortutako bi puntuei esker, taldeak bolada onean murgilduta jarraitzen du. Gaur gaurkoz, taldea txapelketako lehen postuetan dago.

SAILKAPENA	
1.LURRALDEKO SENIORRAK	
1	Tolosa B 33
2	Ordizia 27
3	Hondarribia Bidasoa 26
4	Aritzbatalde 22
5	Munttarpe 20
6	Soraluze 20
7	Urnieta Artola Harategia 18



MARTXOAK 21

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

berria

ERREMONTE

TXAPELKETAK 2026

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

ALDABE · GOIKOETXEA VI VS

AIESTARAN VII · LARRAÑAGA

2. PARTIDA (BERRIA ERREMONTE TXAPELKETAK)

GOIKOETXEA V · ZUBIRI VS

JABALERA · AIESTARAN VI

3. PARTIDA (BERRIA ERREMONTE TXAPELKETAK)

DESKARGA · JUANENEA VS

ARLUZIAGA · AZPIROZ

SARRERAK

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN "Orratz Begia"

Erakusketak, 1936ko kolpe militarren aurkako erresistentzian Frantzia, Belgika, Britainia Handia, Katalunia, SESB eta Amerikara ebakuatutako haur gipuzkoarren eta andoaindarren ondarea biltzen du. **Irekiera: Bastero Kulturgunea. Martxoak 27, ostirala. 18:00.**

HITZALDIA

ANDOAIN Lanbide Heziketa

"Etorkizuna diseinatzen: LH, aukeraz beteriko bidea". Hizlariak: Maite Lizartza, Hezkuntzako Saileko ikuskaria; Natalia Gaston iTlent Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institututuko ikertzailea; eta, Oier Urkola eta Joanes Agirre ikasle ohiak. Moderatzailea: Maria Meijide, Hezkuntzako ikuskari burua. **18:00, Bastero Kulturgunea. Martxoak 18, asteazkena.**

ANTZERKIA

URNIETA "Las reinas"

La Cuerda Teatro konpainiaren obra, kanping batean girotuta. **19:00, Sarobe. Martxoak 18, asteazkena.**

ANDOAIN "Kimu"

Marie de Jongh konpainiaren berriena. Maskaradun antzerkia. **12:00, Bastero. Martxoak 29, igandea.**

DOKUMENTALA

ANDOAIN Itoiz

"Itoiz, udako sesioak". Solasaldia, Larraitx Zuazo zuzendariarekin. **18:30, Bastero Kulturgunea. Martxoak 24, astearte.**

MUSIKA

ANDOAIN Filhos de Norris

Bossa eta funk-a estilo propio batean fusionatzen dituen duoa osatzen dute Sebastian eta Nicolas Bianchi anaiek. **19:30, Bastero Kulturgunea. Martxoak 27, ostirala.**



Bertso-pilota saioa, iaz, Urnietako Euskaraldian. Saio berria laster da. AIURRI

URNIETA Bertso-pilota, Korrika Batzordearen eskutik

Julen Alberdi-Imanol Odriozola eta Iker Urmeneta-Mikel Aranguren bikoteak, aurrez aurre. Bertsotan, berriz, Andoni Rekondo eta Andoni Mujika "Anatz". **19:30, Udal pilotalekua. Martxoak 23, astelehena.**



Iago Azkue gazteak magia ekarriko du Urnietara. KATAPULTA

URNIETA Magia saioa, Korrika iristeko atarian

Iago Magoaren ikuskizuna. Lehenago, Egape Dantza Taldearen eta Musika Eskolako ikasleen emanaldia. **19:00, San Juan plaza. Martxoak 22, igandea.**

DANTZA

URNIETA Urnietako Erromerian

Maiatzean dute ospakizun handia eta, datari begira, entsegua deitu dute. **10:00-12:00, Egape ikastola. Martxoak 28, larunbata.**

IKASTAROA

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

Astekariko 11. orrialdean aurki daitezke udaberriko eskaintzaren xehetasunak. **Izen-ematea: Berdintasun Saila.**

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Torrente presidente

Larunbata, 21. 19:30.
Igandea, 22. 19:30.
Astelehena, 23. 17:00, 19:30.

Cumbres borrascosas

Larunbata, 28. 19:30.
Igandea, 29. 19:30.
Astelehena, 30. 17:00, 19:30.
Ninja Laukiduna
Marxoak 22-23. 17:00.




SINOPSISIA

Ninja laukiduna

Zuzendariak: Thorbjørn Christoffersen, Anders Matthesen. **Herrialdea:** Danimarka. **Hizkuntza:** Euskaraz. **Generoa:** Marrazki-bizidunak. **Iraupena:** 84 m.

Zinema euskaraz, haurrentzat

Nerabe batek ninja abenturekiko interesa galdu du. Horregatik, ninja lagun magikoa triste sentitzen da. Gaztearen errutina erotik aldatzen da arazoak sortzen dituen matoi batekin topo egiten duenean, eta, horren ondorioz, bere beldurrei aurre egin behar izaten die. Bere lagun ninjak, kezkatutik, bere burua defendatzera eta bere buruarengan konfiantza berreskuratzera bultzatzen du. Elkarrekin, akzioz eta umorez betetako abentura berriak biziko dituzte berriro. Eta beren argitasuna eta ausardia probatzen dituzten erronkei aurre egin beharko diete.



Udaberriko fanpaina

SARI HAUEK IRABAZI NAHI?

Martxoaren 23tik aurrera txartelak agortu arte.

Erosi Andoaingo saltoki eta ostalaritzan eta sari hauetako bat toka dakizuke

25€ Esperientzia 1

ANDOAINGO ZENDAK BETI DUREKIN

SALKIN